



Raul BOGAJO | FOKU

IKUSMIRA

MUNDUAN GEHIEN IRAKURRI DEN LIBURUAREN NAZIOARTEKO EGUNA

Liburuaren Eguna. Liburuek ere beren eguna dauka-te-eta. Beharbada, letra larriko egunen zalaren batek Liburu Saltzailearen eta Irakurlearen Eguna ere ospatu litekeela pentsatu du. Herenegun liburuarena izan zen, ordea, eta halako egunez bete ohi diren plazak eta txokoak hutsik zeuden. Seguruena, munduan gehien irakurri den Liburuaren Eguna izan zen. Gehien irakurri den egunetakoa. Edonola ere, izan zen ospakizun eta ekimenik. Ez da gauza bera, baina baliteke denboraren joanean gero eta normalagoa edo behinik behin ohikoagoa izatea egun horretako ospakizun birtuala. Txintxu, Gasteizko Zuloa liburu dendako arduraduna, ez da urteroko zurrumbiloan murgildu, zoritxarrez, ez du lan astun horiek egin beharrik izan. Horren orde, natura hil bat atondu eta Facebook sare sozialera igo zuen haren argazkia. Ez da gauza bera.

Xabier Izaga Gonzalez